



DANI BLANCO

Oier Araolaza

DANTZARIA ♦

## Likinkeriaren bitsa

BARTOLOME MADARIAGAK honela deskribatu zigun dantzaldia: “Kazuelan erlea legez, mordo batean gizon eta andreak nahasian”. Areago, “mutilak eta neskak, guztiak, zintzotasuna galtzeko prest” joaten zirela festara. Mutilak neskaren aurrean “mila keinu indezente” egiten zituzten “hezi gabekoak, asto basatiak” ziren. Neskak “bularrak berariaz jasota, edo armatuta, edo paparra agerian” agertzen zirela dantzara. Haien aurrean “zenbat eta indezentzia gehiago” egin, hainbat pozago izaten zirela, “labainkeriaren eta likinkeriaren bitsa” zeriela. Bartolomek esaera gaiztoaz definitzen zituen: “Ez zaio beleari usoa esaten, ez bada belea”.

Dantzaldia hasi eta “nahi duenak nahi duena egiteko ordua da” irakurrita irudimena hegan. “Lizunkeriaren sua eta kea da nahaste horretan entzuten eta ikusten den guztia”. Ni zur eta lur.

“Begirada eta jarrera likitsak. Musu emateko keinu eta oratze lohiak. Gorputzarekin elkar jotze lizunak. Eta hori guzti hori, dantza bakoitzean, geratu gabe, neskak mutilari eta mutilak neskari”.

Juergasmoaren gailurrean bi dantza bereizi zituen Madariagak. Lehenengoan, “dantza arinean, oin biak labain eginda, plazaren erdian jausita geratzen dira andrazkoak”. Jendea “begira, txaloka”. Bigarren dantzan “noiz aurpegiarekin, noiz besoekin, noiz sabele-

kin, noiz alboekin” elkar ukitu eta jotzen, “bai neska eta mutil, keinu lizun eta lotsagarriak galdetu gabe egiten dizkiotela elkarri”.

Dantzaldia bukatuta, garrasi, txilio eta birao artean, neska-mutilak elkarri oratuta “doaz plazatik etxera, aldi batean nahasian eta mordoan oihuka, deiadarka, barrez eta oratuta, lizunkeriaren festa eta hatsa dariela”. Plazatik ateratzean “neskak, halakoak izan arren, askotan koloreak gorrituta” zetozeela zioen Madariagak: “Euren iduneko zapiak askatuta eta burukoak okertuta, ikusi gabe sinetsi ezin daitekeen moduan”.

Ohikoak omen ziren “irteera zikin horretan neska eta mutilen artean, norik nori asko ez dakiela nahasian, zirri ukitze lohiak, oratze lizunak, eskuka likitsak, bekatuako gonbiteak eta beste lizunkeria asmoak”. “Horra hemen nola egiten diren plazetako festak”

dio Bartolome Madariagak. “Ez dut ezer esan gehituta. Bai asko gutxituta, zatarkeria lizun guztiak papelean ez jartzearren”.

Orain bi mende idatzi zituen hitzok Frai Bartolomek. Soka-dantza, fandango eta arin-arin-ei buruz idatzi zituen. Nik begiratzen diot fandangoari, begiratzen diot arin-arinari eta ez dakit zer pentsatu. Ez dakit beleari usoa, baina bietako batek kuku egin digu! ■

*Bartolome Madariagak esaera gaiztoaz definitzen zituen neska eta mutil dantzariak: “Ez zaio beleari usoa esaten, ez bada belea”.*



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

## Katalogoak

ABISU emanka hasia da kutxa ergela: gero eta hurbilago ditugu Eguberriak. Argi esekien jantzia estreinatzeari ekin diote erdialdeko kaleek, argion egokitasuna defendatzen eta kritikatzan duten ahotzen artean. Jostailu zaharrak biltzeko kanpaina baten berri izan duzu seme-alaben eskolaren bitartez: Saharako kostaldeko herri batera bidali nahi dira abenduaren 19ra arte jasoko diren jostailu guztiak.

Zer jostailu diren eramangarri eztabaidatzen ari zara alaba txikiarekin, haren gelan. Alaba zaharrena, bitartean, Eguberrietako jostailuen katalogoak begiratzen

ari da egongelan. Izan ere, horretarako arrazoi zehatza zein den ez badakizu ere, aurrean inoiz baino katalogo gehiago jaso dituzuela etxean esango zenuke.

Egongelara joan zara eta, nola ez, bertan ikusi duzunak harritu egin zaitu: egongelako egurrezko mahai gainean diren jostailuen katalogoei erditsua falta zaie; oraindik nabari da guraize dorpe samar batzuen lana orrialde ertzetan. “Baina zer egin duzu, Enara?”. “Mutikoen gauzak kendu. Urdina kanpora!” Bi koloreko diktaturak margotuko du berriz ere abendua. ■

